

## **5. Banaketa eta komunikazio kanalak**

Bezeroarekin edo bezero-segmentu anitzekin harremanetan jartzeko erabiliko ditugun bide nagusiak deskribatuko ditugu. Balio-proposamena bezeroari edo bezero-segmetuei banatzeko erabiliko ditugun bide nagusiak ere deskribatuko ditugu.

*Up to Date* enpresa bezeroekin ahalik eta modurik egokienean eta hurbilenean komunikatuko da. Horretarako, hainbat metodo erabiliko ditugu, eskuragarrienak direnak bezeroentzako. Hala ere, azaltzeko ulergarrienak eta errezenak erabiliko ditugu, horrela, bezero guztiak izan ahal dute komunikatzeko aukera enpresarekin, onena izanda. Baina lehenik eta behin bezeroak gure app-a erabiltzen ari direnean nola komunikatu ahal izango diren gurekin azalduko dugu, komunikazioa oso garrantzitsua baita gure enpresan (bezeroek helarazi nahi dizkiguten zalantzak eta gainerakoak argitu ahal izateko). Horretarako, aurrerago azalduko ditugun tresna batzuk erabiliko ditugu.

Alde batetik, bideoen, zuzenekoen, web-orrien edo sare sozialen bitartez izango dira.



Hasteko, bideoak bi motatakoak izango dira eta gure plataformaren bitartez ikusiko dira. Lehenengo motatakoak materia lantzekoak izango dira, non modu zabal batean irakasleek azalduko duten, adibideak eta modu interesgarri batean azalduz. Bigarren motatakoak aldiz, zehatzagoak izango dira, orain azalduko dugun moduan:

Bideo hauetan irakasleek ikasleek ulertzen ez dutena azalduko dute. YouTube bezalakoak izango dira, eta 15-20 minutukoak (nahiago baitugu materia 15-20 minutuetara murriztea), baina gure plataforman aurkituko dira. Hauek iraupen hau izango dute ikasleak



zentratuago egoten direlako; ordu beteko bideo bat eginez gero, ikasleek interesa galduko lukete eta bideoa ez lukete bukatuko edo ez liokete arreta handirik jarriko. Bideo hauek irudiak, irudiak eta bestelako interesarako tresnak izango dituzte, atseginagoak eta entretenigarriagoak

izan daitezzen. Hala ere, salbuespen gutxi batzuk egon daitezke, eta kasu hauek egon ahal izateko, irakasleek gurekin komunikatu beharko dira.

Bigarrenik, zuzenekoak izango dira. Hauek, Instagram edo beste hainbat sare sozial modukoak izango dira, hau da, irakasle batek ordenagailuko pantaila baten atzean egongo da, grabatu egingo da, eta, bitartean, ikasle interesatuak irakaslea entzuten eta ikusten egon ahal izango dira, eta, aldi berean, irakasleak bere ezagutzak partekatu ahal izango ditu gainerako ikasleekin. Baina hainbat gauza gehitu diogu. Esate baterako, idazteko aukera edukiko du eta baita galderak jartzeko aukera ere, horrela zalantzak argituko dira, ulergarriagoa izango da ikasleentzako eta bien artean komunikatzeko errazago da. Momentu honetan, ikasle asrteko erlazioa zuzena izango da.



Ondoren, web orriaren bitartez eta, azkenik, sare sozialen bitartez komunika gaitzke bezeroekin eta zalantzak argituko dizkiegu. Hala nola, mezuen bitartez. Egunero mezuak irakurriko ditugu eta ez da geratuko bezero bat ere ez bere galdera erantzunik gabe.

